

PRESIDENTEA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2015eko APIRILAREN 23an EGINIKO
OHIKO OSO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita hiruko arratsaldeko zazpiak direnean, Josu Artetxe Arana alkatea buru dela, ezkerrean aipatutako zinegotziak, deialdia eginda, elkartu dira ohiko bilkura egiteko, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat, eta Naiara Lazpita Marcos andreak idazkari zereginak egin ditu.

Jarraian, deialdiaren eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak aztertu dituzte.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta osoko bilkurara ongietorria eman die guztiei.

Jarraian, eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak aztertu dituzte:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko martxoaren 31ko ohiko osoko bilkuraren akta.

Iratxe Parro andreak (AB) esan du aktan aipatzen diren eranskinak ez direla banatu.

Idazkariak erantzun du akats bat egon dela dokumentazioa banatzean, eta eranskinak akta-liburuaren akta ofizialei erantsiko zaizkiela.

Besterik gabe, akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

2.- Onestea, bidezkoa bada, judizioz kanpoko 1/2015 kreditu-azterketa.

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Honako hauek kontuan hartu dira:

- Judizioz kanpoko 1/2015 kreditu-azterketa.
- Idazkari eta kontu-hartzaileak 2015eko apirilaren 10ean egindako txostena.

OINARRIAK:

- Ogasuna, Ekonomia Sustapena, Enplegua, Funtzio Publikoa eta Kontuak Informazio Batzordeak 2015eko apirilaren 14an emandako aldeko txostena.

- Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 176. artikulua eta toki ogasunak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.

Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa.- Judizioz kanpoko 1/2015 kreditu-azterketa onestea, jarraian aipatzen diren gastuak kontuan hartuta:

- Arabako Artzain Txakurren Aldeko Elkartearen (Arate Araba) 3 zenbakiko faktura, 2012ko irailaren 1ekoa. Fakturaren kontzeptua: "Artzain-txakurren erakustaldia antolatzea, San Bitores jaietan (Kobata) irailaren 1ean eguerdiko 13.00etan. Zenbatekoa: 1.000 €, BEZik gabe.
- Arabako Artzain Txakurren Aldeko Elkartearen (Arate Araba) 5 zenbakiko faktura, 2013ko azaroaren 27koa. Fakturaren kontzeptua: "Artzain txakurren erakustaldia antolatzea, San Bitores jaietan (Kobata) irailaren 7an eguerdiko 12.00etan. Zenbatekoa: 1.000 €, BEZik gabe.

Bigarrena.- Aipatutako kreditu-azterketa 2015eko ekitaldiko aurrekontuari egoztea.

3.- Kontu-hartzaileak aurrekontuen egonkortasunari buruz egindako txostenaren berri ematea osoko bilkurari, Diruzaintzaren geldikina erabiltzeari dagokionez.

Idazkariak txostena azaldu du, labur-labur, eta Udalbatza jakitun dago.

Honako hauek kontuan hartu dira:

- 2014ko likidazioan gastu orokorretarako Diruzaintzaren geldikina erabili behar da gastu partidak sortzeko edo dauden partidak handiagotzeko, eta, horrela, 2016ko aurrekontua prestatu baino lehen egin beharreko ordainketak egin ahal izango dira.

- 2015eko apirilaren 20an idazkari eta kontu-hartzaileak txostena egin zuen, gastu orokorretarako Diruzaintzaren geldikina gastuak finantzatzeko erabiltzeak dituen ondorioei buruz.

OINARRIA:

- Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 eta 7.3 artikulak (Foru Arauak emandako idazketan).

Diruzaintzaren geldikinaren erabilerari dagokionez, kontu-hartzaileak aurrekontuen egonkortasunari buruz egindako 2015eko apirilaren 20ko txostenaren jakitun dago Udalbatza.

4.- Onestea, bidezkoa bada, 1/2015 kreditu gehigarria.

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Honako hau kontuan hartu da:

2014ko likidazioan gastu orokorretarako Diruzaintzaren geldikinaren zati bat erabili behar da gastu-partidak sortzeko edo dauden partidak handiagotzeko, eta, horrela, 2016ko aurrekontua prestatu baino lehen egin beharreko ordainketak egin ahal izango dira.

OINARRIA:

- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan eta Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean xedatutakoa.

Udalak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Jarraian aipatzen diren kreditu gehigarriak onestea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA/€
312.601.000	LUIAONDOKO ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA	186.661,50 €
312.622.003	LUIAONDON ETXOLA PRESTATZEA, BOTIKINERAKO	60.000 €
135.227.990	GEOLOKALIZATZAILEA ESKURATZEA	20.000 €
170.221.990	MINIPUNTUAK ESKURATZEA	9.500 €
920.141.001	BESTE LANGILE BATZUEN KONTRATAZIOA	10.000 €
943.734.000	ARABAKO BATZAR NAGUSIEN DIRU LAGUNTZA, OBRETARAKO	26.000 €
151.642.004	ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA: EDAR MARKIXAA LURSAILAK	5.000 €
929.226.990	KALTE ORDAINA EMATEA GURBISAK ORDAINDU EZ DITUEN LAN GASTUENGATIK	29.040 €
920.226.040	LAN POLTSAK SORTZEA. BARNE EPE	6.000 €

Aurreko zenbatekoa baliabide hauek finantzatu dute, eta, horrela, espedientea orekatuta dago, defizitik gabe.

<u>DIRU SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKOA/ €</u>
87001	DIRUZAINZAKO GELDIKINA GASTU OROKORRETARAKO	352.201,50 €

Onetsi diren kreditu osagarrien zenbateko osoa eta kreditu horiek finantzatzeko diru-sarrerara guztien zenbatekoa berdinak dira.

Bigarrena.- Kontu-hartzaitzak aurrekontuaren gastuen egoeran aldaketak egitea eta ondorioak ahalik eta lasterrena eragitea.

5.- Onestea, bidezkoa bada, "Ayala-Aiarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra" agiria jendaurrean ikusgai jartzea.

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Honako hauek kontuan hartu dira:

-2013ko abenduaren 19an Osoko Bilkurak erabaki zuen Aiara udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra prestatu eta idazteko prozedura hastea.

-2014. urtean beharrezko txostenak eskatu dira, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.1 artikulua araberaz.

-Udalerriko administrazio-batza guztiei eskatu zaie txostena, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.2 artikuluaekin bat.

- 2014. urtean eta 2015. urtearen hasieran herritarrei, biztanleriaren beste sektore batzuei eta udalerriko administrazio-batza guztiei informazioa eman zaie, eta kontsulta egiteko prozesua abiarazi da.

OINARRIAK:

- EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3 artikulua.

- Hirigintza Batzordeak aldeko irizpena eman zuen 2015eko apirilaren 15ean.

Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiara Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapen-agiria bi hilabetez jendaurrean ikusgai jartzea, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, ALHAOn, lurraldean hedapen handieneko egunkarian eta Udalaren web orrian iragarkia jarritz.

Hirugarrena.- Aurrerapen-agiriaren zabalkundea eta jendaurreko aldia osatzeko, agiri osoa <https://sites.google.com/site/pgouaiara/avance> web orrian argitaratzea (esteka Udalaren web orrian). Horretaz gain, agiri osoak udaletxean ere egon beharko du kontsultatzeko, eta idazketa-taldeari zuzeneko kontsultak egiteko aukera emango da, jendaurrean ikusgai dagoen artean, asteazkenetan, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta.

Laugarrena.- Aurrerapen-agiriaren kopia digitala Arabako Foru Aldundiko zerbitzu eskudunei, udalerririk mugakideei eta udalerriko administrazio-batzei bidaltzea, proposatutako egituraren funtsezko alderdien berri izan dezaten.

6.- Ez onestea, bidezkoa bada, 2014ko martxoaren 14an F. A. jaunari 329/14 Alkatetza Dekretuaren bitartez emandako lizentzia ofizioz berrikusteko eta erabat deuseza dela adierazteko Etxegoieneko Administrazio Batzak egindako eskaera.

Esmeralda andreak (EAJ-PNV) esan du bere alderdia abstenitu egingo dela, bere iritziz gobernu-taldeak ez duelako zuzen jokatu, nahiz eta obra txikia izan, udal-teknikariak azken batzordean eman zituen azalpenen arabera. Administrazio Batzarekin adostu behar zen arazoaren irtenbidea, eta nahitaezko txosten guztiak lortu arte itxaron behar zuten obrak geldiarazteko agindua kentzeko.

Iratxe Parro andreak (AB) esan du bere taldea ere abstenituko dela, Administrazio Batzak emandako tratuagatik.

Jose Luis Pedruzo jaunak (PP) berretsi du aurrekoek esandakoa.

Gaiari buruz beste ezer aipatu ez denez, gaia bozkatu da eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 4 (Bildu)

ABSTENTZIOAK: 5 (2 EAJ-PNV, 2 AB, 1PP).

Beraz, erabakia onartu da.

Honako hauek kontuan hartu dira:

- 132/2014 Dekretua, martxoaren 20koa; dekretu horren bidez, F. A. jaunari obrarako lizentzia eman zitzaion, Etxegoieneko 5 poligonoko 688 lurzatian ur-putzu bat egiteko. Obrarako lizentzia eman zitzaion, baldintza hauek ezarrita:

- Obra eta aprobetxamendua egingo dira Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2014ko otsailaren 4ko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzen arabera (2,00ko diametroko eta 6,53ko sakonerako putzua).
- Obra egin bitartean proiektuan aldaketaren bat egin behar bada, Udalarari jakinarazi beharko zaio.
- 1672/1997 Errege Dekretuan ezarritako baliabideak eduki beharko dira; dekretu horrek ezartzen ditu eraikuntzako obretan izan behar diren gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak.
- Eraikuntzako hondakinak 105/2008 Errege Dekretuan eta EAEko 112/2012 Dekretuan (eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) ezarritakoaren arabera erabili beharko dira.

- 2014ko abuztuaren 14an udal-teknikariak egindako txostena. Administrazio Batzak salaketa jarri ondoren, ikuskatzeko bisita egin zuten teknikariak, eta euren txostenean jasotzen da Konfederazioak ezarritakoa; hau da, putzuak 15 metrora kokatuta egon behar duela, baina tarte txikiagoa utzi dutela; beraz, obra egiteko, sektoreko txostenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

- Etxegoieneko Administrazio Batzak 2014ko abuztuaren 20an aurkeztu zuen idazkia. Bertan salatzen da F. A. jaunak ez dituela betetzen eman zitzaion lizentziaren

baldintzak, hain zuzen ere, hondakinak hondakindegia baimendu batera eramatea eta lurrak eta harrizko materialak obran bertan berrerabiltzea. Hala ere, hondakinak Administrazio Batzaren jabetzako bideetan utzi direnez, 2014ko martxoaren 20an emandako obrarako lizentzia baliogabea dela adierazteko eskatzen da; izan ere, lizentzia obra txiki moduan eman zitzaion arren, obra handia da eta herri-lanetako makinak erabili dira.

- Etxegoieneko Administrazio Batzak 2014ko irailaren 17an aurkeztu zuen idazkia. Obra txikietarako lizentzia baliogabea dela adierazteko eskatzen da berriro, hirigintzako lizentziak emateko prozedura orokorra urratuz eman baitzen lizentzia hori. Izan ere, obra txiki moduan kalifikatu zen, baina obren kalifikazio hori okerra zen; gainera, teknikari eskudunak ez du proiektua sinatu eta ez dago ikus-onetsita, eta Etxegoieneko kontzejuaren nahitaezko txostena ere falta da.

- 131/15 Alkatetza Dekretua, 2015eko martxoaren 26koa, Etxegoieneko Administrazio Batzak jarri zuen berraztertze errekurtsoa ezesten duena. Abuztuaren 22ko 384/14 Alkatetza Dekretuak obrak geldiarazteko agindua ezeztatu zuen eta aldatutako hirigintza-ordena lehenagoratzeko espedientea ireki zitzaion F. A. jaunari, batetik, hasierako kokalekuari dagokionez putzuaren behin betiko kokalekua aldatzeagatik (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak onartutakoak) eta bestetik, obrak udal-lizentziarik gabe egiteagatik. Obra horietan ur-hoditeriaren tutuak jarri ziren, ur-emia neurtzeko kontagailua eta euskarri mugikorra jarri ziren, uraska eta guzti, eta bide publikoetako indusketetako 21,88 m³ material isuri zen.

- Udal-zerbitzu teknikoaren txostenak, 2014ko irailaren 4koa eta 2015eko otsailaren 2koa eta 25koa.

GERTAKARIAK:

- 2014ko irailaren 4ko bigarren txostenak jasotzen du espedientean dagoen dokumentazio grafikoan eta idatzian (memoria eta aurrekontu nahiz neurketen agiriaren obra-unitatea) ez dela hoditeria aipatzen (50 m-ko zuloa). Administrazio Batzan lizentziarik gabe egiten ari direla salatu du.

Txostenak gaineratzen du obra horiek legeztatu daitezkeela, obra txikiko lizentzia behar dutela, ur publikoaren aprobetxamenduko putzuaren eraikuntzarekin lotutako obrak direla eta agiri osatu gabea zela, ez baitzuen jasotzen ura eraikinarren barrura eramatea, ezta ponparik eta ponparen elikadurarik ere.

Halaber, gehitzen du putzuaren behin betiko kokalekuaren agiri grafikoak, hoditeriaren seinaleztapena, putzutik egindako bigarren desbiderapena eta obren behin betiko likidazioa, egindako esku-hartze guztiak barne, aurkeztu behar direla lanak amaitu ondoren.

- Udal-zerbitzu teknikoaren 2015eko otsailaren 25eko txostenak honako hau adierazten du:

- Egindako obrak ez die egiturazko elementuei eragiten, teknikoki obra errazak eta merkeak dira, ez die pertsonen edo ondasunen segurtasunari eragiten eta obra txiki moduan baino ezin dira kalifikatu. Herri-lanetako makinak erabilerari eta indusketari buruzko Administrazio Batzaren idazkiak aztertuta, berriz dio

indusketako lana txikieria bat izan dela eta hormigoizko oinarri soil bat baino ez dela, hau da, putzuaren behealdeko itxiturako elementuen euskarri. Hori guztia dela eta, obra txikiak dira.

- Administrazio Batzaren bideetan egindako isurketak Aldama jaunaren lursaileko obretatik datozela frogatzen bada, hirigintzako arau-haustea izango litzateke. Isurketa 500.000 m³-tik beherakoa da; beraz, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena egin beharko litzateke, eta lurzatian egin den jarduketa legeztatu ahal bada, arau-haustea arina izango litzateke; ezin bada legeztatu, ordea, arau-hauste larria izango litzateke.
- 5 poligonoko 688 lursailean egin diren jarduketak legeztatu daitezke, baldin eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren sektore txostena obren aldekoa bada, eta interesdunak obrak legeztatze eskaera aurkezten badu. Eskaera horrekin batera, obren likidazioaz gain, interesdunak honako hauen dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko du: putzuaren kokalekua, sekzioa, ur-eroanbideen hoditeria, deribazio kutxatila, jarduketaren elementuak, ur-emariaren eta bolumenaren neurgailuak, ponpak, balbulak eta eraikitako instalazio osoaren eskemak errealak.
- 2014ko martxoan emandako obra lizentzia ofizioz berrikusteko eta erabat deuseza dela adierazteko eskaera ez da onartzen, deuseztasun arrazoirik ez baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62. artikulua araberak.

Lizentzia baliogabea dela adierazteko eskaerak ez du oinarririk, zerbitzu teknikoek jakinarazi baitzuten obra txikia zela eta beraz, lizentzia ematean ez zen arau-hausterik izan hirigintzako lizentziatarako prozedura orokorrean; horretaz gain, obraren kalifikazioa zuzena izan zen, obra txikia zelako, eta indarreko legeen arabera Etxegoingo Kontzejuaren txostena ez da derrigrezkoa.

Hala ere, hirigintzako ordena lehengoratzeko 2015eko martxoaren 26ko 131/15 Alkatetza Dekretuaren bidez irekitako espedienteari ekingo zaio.

OINARRIAK:

-Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikulua eta hurrengoak, batez ere, 102.3 eta 105 .1 artikulua.

Osoko Bilkurak, gehiengo soilaz, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2014ko martxoaren 20an 329/14 Alkatetza Dekretuaren bidez F. A. jaunari emandako obrarako lizentzia ofizioz berrikusteko eta erabat deuseza dela adierazteko Etxegoingo Administrazio Batzaren eskaera izapidetzea ez da onartzen.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Etxegoingo Administrazio Batzari eta F. A. jaunari, udal-zerbitzu teknikoaren 2014ko abuztuaren 14ko eta irailaren 4ko, eta 2015eko otsailaren 3ko eta 25eko txostenen kopiekin batera.

Dena dela, hala nahi izanez gero, erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Udalbatzari, eta horretarako hilabeteko epea izango da. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, bi hilabeteko epearen barruan, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

7.- Behin-behineko onespina ematea, bidezkoa bada, Aiarako Plangintzako Arau Subsidiarioen bosgarren aldaketa puntualari, Aiarako 5. poligonoko 137-B eta D katastroko azpipartzelen sailkapen aldaketari buruzkoa.

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Honako hauek kontuan hartu dira:

- Udalaren Arau Subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren espedientea izapidetzeko Udalak egindako jarduketak.

- 2013ko abenduaren 19ko ezohiko osoko bilkuran hasierako onespina eman zitzaizen Udalaren Arau Subsidiarioen 4. aldaketa puntualari eta Ingurumen Iraunkortasuneko txostenari (Ingurumenaren gaineko Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren esparruan aurkeztu zen txostena).

- Espedienteak jendaurrean ikusgai jarri ziren hilabetez, iragarkia 2014ko urtarrilaren 3ko ALHAOn (1. zenbakia) eta 2013ko abenduaren 26ko *El Correo* egunkarian argitaratuz, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

- Sektoreetako administrazioek eman eta espedienteetan dauden txostenak.

- Udalaren Arau Subsidiarioen 5. aldaketa puntualari buruzko agiri teknikoa, aldaketak barne, IMB ARQUITECTOS. SLPk idatzitakoa.

- Ingurumenaren gaineko Ebaluazio Estrategikoaren prozedura izapidetzea; prozedura horretan Ingurumen Iraunkortasuneko txostena eta ingurumeneko memoria egin dira, eta biak hirigintzako agiri batean txertatu dira, espedienteetan jasotzen den bezalaxe.

OINARRIAK:

- Hirigintza Batzordeak 2015eko apirilaren 21ean emandako aldeko irizpena.

- Udal teknikariaren 2015eko apirilaren 23ko aldeko txostena.

- Ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginaren 114-1 eta 128-1 artikuluetan ezarritakoa, eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. artikuluan eta hurrengoetan, eta 104. artikuluan ezarritakoa.

- Eusko Legebiltzarrak onartutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan ezarritakoa.

Udalak, AHO BATEZ, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Udalaren Arau Subsidiarioen 5. aldaketa puntualari buruzko espedientea behin-behinean onestea, Ingurumen Iraunkortasuneko txostena eta ingurumen-memoria barne (Ingurumenaren gaineko Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren esparruan aurkeztutakoak). Dena dela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 25. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dira.

Bigarrena.- Erabaki honen egiaztagiria Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuari bidaltzea.

Hirugarrena.- Espedientea Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeari bidaltzea, txostena egin dezan.

Laugarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordearen txostena jaso ondoren, espediente osoa Ingurumena eta Hirigintza Sailaren Hirigintza Zerbitzuari bidaliko zaio, behin betiko onetsi dezan.

Bosgarrena.- Erabaki hau Arespalditzako Administrazio Batzari eta Alday Fundazioari helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta ondorioak izan ditzan.

Eguneko aztergaien zerrendarekin jarraitu baino lehen, alkate-udalburuak proposatu du, premiazko bozketa eginda, eguneko gai-zerrendatik kanpoko gai bat sartzea; zehazki, "Erabilera anitzeko Luiaondo eraikina birgaitzea" obraren laugarren ziurtagiria, 2015eko martxokoa, onestea.

Eguneko gai-zerrendatik kanpoko gai bat lantzeko bozketa egin behar da, eta udalbatzak aho batez onetsi du.

8.- Onestea, bidezkoa bada, "Erabilera anitzeko Luiaondo eraikina birgaitzea" obraren laugarren ziurtagiria, 2015eko martxokoa. Zenbatekoa: 37.835,43 euro (BEZa barne).

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratuek.

OINARRIAK:

- 2014ko azaroaren 17an osoko bilkurak hartutako erabakiaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari "Erabilera anitzeko Luiaondo eraikina birgaitzea" obra egiteko kontratua esleitu zitzaion. Obraren zenbatekoak: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

Kontuan hartu da Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztu zuen 4. egiaztapena eta faktura, guztira 37.835,43 eurokoa (BEZa barne).

OINARRIA.- D. P. O. obrako zuzendariak ikus-onetsi zuen.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak egindako 4. ziurtagiria onestea. 37.835,43 euroko dira (BEZa barne). Bestalde, gastua baimentzea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 37.835,43 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.

Jarraitu baino lehen, alkate-udalburuak proposatu du, premiazko bozketa eginda, eguneko gai-zerrendatik kanpoko beste gai bat sartzeari; zehazki, VILLAR enpresari kalte-ordaina ordaintzea onesteari buruzkoa, GURBISAk garbitzaileekin zituen zorrak era solidarioan ordaintzeko zigorra jarri baitiote.

Bozketa egin da eguneko gai-zerrendatik kanpoko gaia sartzeko, eta Udalbatzak aho batez onetsi du.

Hori dela eta, gai hau gehitu da:

9.- Onestea, bidezkoa bada, COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR, SA enpresari kalte-ordaina ematea, GURBISA SERVICIOS AUXILIARES SL, enpresak garbitzaile bati zor zion diru-kopurua era solidarioan (GURBISA SERVICIOS AUXILIARES, SL enpresarekin batera) ordaintzeko ezarritako zigorraren ondorioz, enpresa hori baitzen udal-eraikinetako garbiketa-zerbitzuaren aurreko esleipenduna.

Gaiari buruz ezer aipatu ez dutenez, bozkatu eta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Honako hauek kontuan hartu dira:

- Otsailaren 12an, Comercial de Limpieza Villar, SA enpresak idazki bat aurkeztu zuen, Udalari kalte-ordaina eskatzeko; zehazki, enpresa horrek garbitzaile bati ordaindu zion diru-kopuruagatik. Izan ere, langile horrek auzitara eraman zituen udal-instalazioetako garbiketa-zerbitzuen kontratuko aurreko enpresa eta enpresa berria.

GERTAKARIAK:

- Bilboko Lan-arloko 7. Epaitegiaren epaia aurkeztu da. Horren bidez, M^a R. T. del R. andreak aurkeztutako demanda baietsi da eta GURBISA Servicios Auxiliares, SL eta Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresei aurreko enpresak garbitzaileari zor zizkion diru-kopuruak ordaintzeko zigorra ezarri zaie. Halaber, Limpieza VILLAR, SA enpresak 3.679,54 euroko ordainketaren ziurtagiria aurkeztu du, zordundutako diru-kopuruen, interesen eta kostuen kontzeptuan.

- Garbiketa-zerbitzuaren kontratua Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresari esleitzeko oinarri izan zen baldintzen orriaren 14. klausularen arabera, kontratistari aurreko esleipendunak bete gabe utzi zituen betebeharrak ordaintzeko zigorra jarri gero, indarreko legeekin bat etorrira, administrazioak kontzeptu horregatik kalte-ordaina ordaindu beharko

lioke, aurreko esleipendunaren egoera ekonomikoa ikusita, baldin eta uste bada bere eskubidea erabiliz ezin zaiola ordainetan eman.

Klausula horren arabera, administrazioak kontratistari kalte-ordaina ordainduz gero, kontratistak aurreko esleipendunaren aurrean ekintzak gauzatu beharko ditu, kobratzeko edo hartzekodunen lehiaketa aitortzeko; halaber, bere kreditua jakinarazi beharko du, eta, kreditu osoaren edo zati baten ordainketa jasoko balu, administrazioari itzuli beharko lioke ordaindutako diru-kopurua.

- Udalbatza Osoak 2013ko urriaren 29ko osoko bilkuran erabaki zuen GURBISA Servicios Auxiliares, SL enpresarekin zuen garbiketa-zerbitzuaren kontratua bertan behera uztea, eta lehenago utzi zuen behin betiko fidantza konfiskatzea.

- Osoko bilkuraren erabaki horren bidez, pieza bananduari ekin zitzaion, kontratua likidatzeko alderdiei dagozkien eskubideen eta betebeharren kuantifikazioa zehazteko, eta kalte-galerak ere zehazteko, halakorik egon bada. Kontratistari 10 eguneko epea eman zitzaion langileen soldaten eta gizarte-aseguruen egiaztagiriak (2013ko uztailekoa, uztaileko aparteko soldata, abuztuko, irailekoa eta urrikoa) udaletxean aurkezteko, eta jakinarazi zen egiaztagiriak aurkeztu ezean, kontratua bete gabe geratuko zela.

Erabaki horren bidez jakinarazten zen egiaztagiriak aurkeztu ezean, betebeharrak ez direla bete ulertuko zela, eta ohartarazten zen behin betiko fidantza eta kontratistari ordaindu gabe zeuden diru-kopuruak Udalaren bermea izango zirela, langileen subrogazioa eta aurreko esleipendunak bete ez zituen lan-betebeharrak ordaintzeko zigorra dela-eta, garbiketa-zerbitzuaren kontratu berriaren enpresa esleipendunari legezkiokkeen kalte-ordainei aurre egiteko, indarreko legeen arabera.

- Jakinarazpenaren ondoren eta lehiaketa-administratzailearekin kudeaketak egin arren, aurreko enpresak (hartzekodunen lehiaketan dagoena) ez du inolako informaziorik aurkeztu 2013ko uztailetik urrira arteko langileen soldaten eta aseguru sozialen ordainagiriei buruz.

Agerian geratu da diru-kopuru batzuk geratu direla langileei ordaindu gabe, eta aipatutako epaian egiaztatuta geratu da ordaindu behar den zorraren zatia; hori dela eta, bertan behera utzitako kontratuaren behin betiko likidazioan diru-kopuru hori eta etorkizunean egiaztatzen direnak aintzat hartu beharko dira Udalari eragindako kalte-galera moduan, dagozkion ondorioak izan ditzan.

OINARRIA:

.- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa.

Udalaren osoko bilkurak, AHO BATEZ, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresak M^a R. T. R. langileari 3.679,54 euroko zenbatekoa, zordundutako diru-kopuruen, interesen eta kostuen kontzeptuan, ordaindu izana jakinarazitzat jotzea.

Enpresa horri 3.679,54 euroko kalte-ordaina ematea, eta Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresari eskatzea, 15 eguneko epean, hau jakinarazten den egunetik zenbatuta,

Udal honetan egiaztatzeko kontratuaren lizitazioarako oinarri izan zen baldintzen orriaren 14. klausulan jasotako betebeharra bete duela; hau da, kreditua jakinaraztea GURBISA Servicios Auxiliares, SL enpresaren lehiaketa-administrazioaren aurrean.

Enpresari eskatzea, halaber, lehiaketa-administrazioaren aurrean kreditua jakinarazi eta kreditu osoa edo zati bat lortuz gero, administrazioak ordaindu zion dirua itzuli beharko duela.

Bigarrena.- Pieza banandua izapidetzen jarraitzea, GURBISA Servicios Auxiliares, SL, enpresarekin (gaur egun hartzekodunen lehiaketan) bere garaian izenpetu zen garbiketa-zerbitzuaren kontratua likidatzeko alderdiei legozkiekeen eskubide eta betebeharrak zehazteko eta kuantifikatzeko, eta ordaindutako 3.679,54 euroko zenbatekoa egozte, Udal honi eragindako kalte-galera moduan.

Lehiaketa-administrazioari 15 eguneko epea ematea alegazioak egiteko, eta ohartaraztea diru-kopuru hori eta gainerako langileei ordaindu gabe daudela egiaztatzen diren diru-kopuruak kenduko zaizkiela ordaindu gabeko diru-kopuruei; izan ere, diru-kopuru horiek eta behin betiko fidantza bermea izango dira administrazioarentzat, langileen subrogazioa eta aurreko esleipendunak bete ez zituen lan-betebeharrak ordaintzeko zigorra dela-eta kontratu berriaren enpresa esleipendunari legozkiekeen kalte-ordainei aurre egiteko; horrela, kontratuaren behin betiko likidazioan kontuan hartuko dira.

Hirugarrena.- Honako erabaki hau Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresari eta GURBISA Servicios Auxiliares, SL enpresaren lehiaketa-administratzaileari jakinaraztea.

Lehenengo puntuari dagokionez, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal da, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Bigarrenari dagokionez, ezin da errekurtsorik aurkeztu, izapide hutsa delako. Dena den, egokitzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

10.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 132/15.- M.F.B eta Arabako Foru Aldundia.**- Arespalditzako lursail batean kokatutako eraikinean gutxieneko segurtasun-neurriak betearazteko eskatzea.
- **Erref.- 133/15.- Hnas. I. V., S.C.**- Obrarako lizentzia ematea, haragitarako behi-aziendarako eta esnetarako ardi-aziendarako abeltzaintza-pabilioi bat eraikitze, Menoioko lursail batean.
- **Erref.- 134/15.- J.A.G.U.**- Jarduera hasteko espedienterako dokumentazio gehiago eskatzea.
- **Erref.- 135/15.- J.G.F.**- Obrarako lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza batean komuna eraberritzeko.
- **Erref.- 136/15.- Fundación Ciclista Euskadi.**- Txirrindularitza sustatzeko diru-laguntza ukatzea.
- **Erref.- 137/15.- Club Ciclista Amurrio.**- Maestre Amurrio afizionatu kategoriako kirol-proiektu baterako diru-laguntza ukatzea.

- **Erref.- 138/15.- Naturgas Energia Distribución, SAU-** 2015eko lehenengo hiruhilekoko lurzoruaren okupazio-tasaren likidazioa egitea.
 - **Erref.- 139/15.- F/2015/3** zenbakiko fakturen kontabilitatea onestea.
 - **Erref.- 140/15.-** Administrazio-batzetan klorazioko instalazioen kontrol-zerbitzuaren kontratuaren pleguak onestea.
 - **Erref.- 141/15.-** Kredituak birgaitzeko 2/2015 espedientea onestea.
 - **Erref.- 142/15.- S.G.G.-** Fidantza eskatzea, Sojon familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obren hondakinak modu egokian kudeatzeko.
 - **Erref.- 143/15.- M.F.B.-** Dokumentazioa eskatzea, Arespalditzako baserri batean fatxadako hormetan eskora-egiturarako lizentzia emateko.
- Gaiari buruz ez dute ezer aipatu eta bertaratutakoak dekretuen jakitun daude.

11.- Eskaerak eta galderak.

- Esmeralda andreak (EAJ/PNV) esan du hurrengo obra eta zerbitzuen batzordean landu nahi duela Luiaondoko Padura haur parkearen lurzoruaren gaia, zabuen azpiko lonetak altxatuta daudelako eta arriskutsuak direlako. Esteban jaunak (Bildu) esan du kexaren bat jaso duela gai horri buruz, eta aztertuko dela gaia.
- Esmeralda andreak (EAJ/PNV) esan du emakumeek Bilbora egin zuten txangoari buruz, Udaleko inor ez zela joan beraiekin. Bere ustez, plangintza ez da ona izan, batzordearen beste zinegotziren bati deitu ahal zitzaiolako. Emakume horiek adierazi dute ez zekitela nora joan behar zuten, ezta jabetzea non zegoen ere. Josu jaunak (Bildu) esan du gobernu-taldeko norbait joaten dela beti txangoetara, baina egun hartan ezinezkoa izan zela, Gasteizen bilera garrantzitsua zegoelako. Hala ere, Artziniegako alkateordearekin hitz egin zen eta Aiarako emakume-taldearen berri emateko eskatu zitzaionean, ezezko biribila eman zuen. Josu jaunak (Bildu) esan du hasiera batean joateko asmoa zuela, baina azken momentuan ezinezkoa izan zitzaioen eta ez zuen denborarik izan inori deitzeko.
- Jose Antonio jaunak (EAJ-PNV) idazkariari galdetu dio Garbiñe eta Ander ordezkatu behar dituzten EAJ/PNVko bi pertsonaren egiaztagirien gaiari buruz. Idazkariak erantzun du behin baino gehiagotan hitz egin duela Lurraldeko Hauteskunde Batzordearekin, baina udal-hauteskundeetarako prozesua hasita dagoenez, oso lanpetuta egon dira eta ez dituzte egiaztagiriak prestatu.
- Iratxe andreak (AB) gogorarazi nahi du Ikastolako GEk eskatutako bi urteko gelako laguntzailearen eta talde psikopedagogikoaren aldeko agiria egin gabe dagoela. Bere taldeak idazki bi egitea proposatu du, bakoitzaren izaera eta garrantzia bereizita.
- Iraida andreak (AB) gogorarazi nahi du datorren larunbatean, apirilaren 25ean, Menoioko jaia izango dela, eta nahi zuela jai hori San Prudentzioko jaien programazioan kontuan hartzea, behintzat, txupinazoa arratsaldean egiteko eta, horrela, Aiarako jendea Menoioko jaietara ere joateko, bien artean aukeratu beharrik gabe. Datozen urteetarako kontuan hartzeko eskatu du. Aitziber andreak (Bildu) esan du ez zirela horretaz ohartu.

Eta aztertzeo gai gehiagorik ez dagoenez, alkate udalburuak bilkura amaitutzat eman du, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita hiruko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, eta idazkariak, guztiaren fede eman eta honako akta hau sinatu du.

O.E.
ALKATE UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Josu Artetxe Arana

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.